

Etxegabetzeen aurkako ekintza gida

Etxetik kaleratua izateko
hainbat modu daude.
Antola zaitez guztien aurka.



Euskal Herriko
Etxebizitza
Sindikatu
Sozialista

Aurkibidea

Sarrera:	4
Zergatik behar dugu gida hau?	4
Zertarako behar dugu gida hau?	5
1. Ezin dut ordaintzen jarraitu...	7
1.1. Hipoteka edo alokairua	7
1.2. Hornidura-gastuak (elektrizitatea, gasa, ura...)	8
2. Ordaintzen jarraitzen dut, baina...	11
2.1. Nire kontratua amaitu da eta ni joatea nahi dute	11
2.2. Jabeak etxebizitza behar duela dio edo etxebizitzaren jabea aldatu da	12
2.3. Alokairua igo nahi didate eta ezin dut neure gain hartu	14
2.4. Nire etxean obrak egiteko bota nahi naute	15
3. Denboraldi baterako kontratua dut, edo azpierrentamenduan bizi naiz	17
3.1. Nire kontratua urtebetetik beherakoa da	17
3.2. Azpierrentamenduan bizi naiz	18
4. Presionatzen ari zaizkit neu joan nadin	21
5. Indarkeria matxista jasaten dut	23

6. Etxebizitza huts bat okupatu dut, zein egoeratan nago?	25
7. Bota egin nahi naute beren arauak ez betetzeagatik	28
8. Desokupazio enpresa bat ni bota nahian ari da	31
Kontaktuak	34

Sarrera:

Zergatik behar dugu gida hau?

Gerrikoa estutu behar dugun unea omen da krisia. Gezurra. Krisian, kapitalistek irabaziak handitzen dituzte guri gerrikoa estutzeko modu gehiago bilatuz. Mota guztietako jabeek (handiak eta txikiak, erakunde publikoak eta banketxeak) etxebizitza negozio errentagarria izatea nahi dute eta, horretarako, prezioak igo egiten dira. Lehen hipoteka bat ordain zezaketenek ezin diote alokairu bati eutsi, eta alokairu bat ordain zezaketanak, orain, ordaindu gabe geratzen dira.

Prezioen igoeraren zuzeneko ondorioa da gero eta etxegabetze gehiago egotea. Hala ere, ez da ondorioa bakarrik; etxe-kaleratzeen igoerak prezioak igotzea ere ahalbidetzen du: etxebizitza hori errenta altuagoetarako izan dadin botatzen gaituzte, alokairua igo ahal izateko, galerarik ez onartzeko botatzen gaituzte...

Gero eta maizago etxegabetzen gaituzte, eta gero eta errazago. Epailleek, politikariek eta poliziek zigorgabetasun handiagoa ematen diete jabeei, eta etxegabetzeak era askotara egin ditzaten uzten diete: ordena judizialik gabe, denboraldiko kontratuekin, mehatxuen bidez... Horregatik, garrantzitsua da etxetik botatzeko modu guztien aurrean antolatzea; jabeen zigorgabetasunari aurre egiteko eta etxebizitzak pertsona guztientzat izan behar lukeela defendatzeko, doakoa eta kalitatezkoa.

Zertarako behar dugu gida hau?

Gida honetan ez duzu legeei edo araudiei buruzko azalpen luzerik aurkituko (hori Etxebizitza Sindikatuari utzi), baizik eta egoera desberdinei aurre egiteko oinarrizko aholku batzuk. Batez ere, prebentziorako aholkuak dira, eta bi helburu dituzte: alde batetik, egoera okerrera ez joatea, eta, bestetik, modu egokian jokatzeko, gero, sindikatura joaten zarenean, modu eraginkorragoan laguntzeko.

Kontuan izan arazo asko okerrera doazela, kaltetuek ez baitute nahikoa informazio. Sufritzen ari dena legezkoa dela uste dute, egoera ahuletan daudelako edo, besterik gabe, denbora pasatzen uzten dutelako, ezer egitekorik ez dagoela pentsatuta. Ez amore eman! Gida honetan, etxetik botatzeko arrisku-egoerak bereizten dira. Horietakoren batean bazaude, irakurri aholkuak, aplikatu eta joan lehenbailehen Etxebizitza Sindikatu Sozialistara.



1. Ezin dut ordaintzen jarraitu

1. Ezin dut ordaintzen jarraitu...

1.1. Hipoteka edo alokairua

Gero eta jende gehiagok uste du ezin diola aurre egin hipotekari edo alokairuari. Egoera horretan hainbat arrazoiengatik ikus gaitzke, dela Euriborra igotzen delako, dela alokairuak gero eta garestiagoak direlako edo, besterik gabe, baldintzek ordaintzen jarraitzea galarazten digutelako.

Egoera horien aurrean, hona hemen **aholku** batzuk:

1. **Ez joan etxetik:** hipoteka edo alokairua ordaindu ezin baduzu, ez etsi. Ordaintzen ez baduzu, prozedura bat jarraitu behar da, eta zure defentsan oztopoak jarri eta alegazioak aurkezteko aukera egongo da.
2. **Ordaintzeko borondatea erakutsi:** batzuetan, ordaintzeko asmoa duzula frogatzeak mesede egin diezazuke prozesuan, denbora irabazi eta ordainketak birnegoziatzeko aukera ematen baitizu.
3. **Ondo gorde dokumentu guztiak:** gorde zure kontratuak, jabearekiko komunikazioak, jakinarazpen judizialak, etab. Dokumentu horiek guztiak funtsezkoak izan daitezke.

Aholkuoi jarraitetzeaz gain, **zer egin dezaket?**

4. **Birnegoziatu zure ordainketak:** saiatu atzeratutako kuotak edo hilekoak ordaintzeko modua birnegoziatzen, eta, hala, saiatu

ordaintzeko dauden ordainketak atzeratzen eta zatikatzen.

5. **Joan Sindikatura:** zure hipoteka edo alokairua ez ordaintzeari aurre egiteko orientazioa eta laguntza emango dizugu.
6. **Antolatu eta borrokatu:** ez zaude bakarrik eta ez duzu egon behar. Antolatu Sindikatuarekin abusuetatik babesteko eta egoera berean dauden pertsoneri laguntzeko.

1.2. Hornidura-gastuak (elektrizitatea, gasa, ura...)

Azken urteetan ikusi dugu enpresa handiak aberasten ari diren bitartean gure elektrizitate-, gas- eta ur-fakturak, etab. etengabe igotzen direla. Hala, faktura horiek ez ordaintzea gerta liteke, eta hornidura eten.

Horrelako egoeren aurrean, **aholku batzuk** ematen dizkizugu:

1. **Gorde ondo zure faktura guztiak:** gorde iristen zaizkizun fakturak, beharko dituzu eta.
2. **Kontsultatu zure tarifak:** badira beste aukera batzuk, hala nola, araututako tarifak eta kontsumitzaile ahulentzako tarifak, oinarrizko horniduren prezioekin espekulatzen dutenen abusen aurrean lagungarri izan daitezkeenak.

Aholku horiez gain, **Zer egin dezaket?**

1. **Birnegoziatu zure ordainketak:** gastuak ordaintzeko modua birnegoziatu dezakezu kuotak atzeratu eta zatikatzeko.

2. **Joan Sindikatura:** orientazioa eta laguntza emango dizugu hornidurak ez ordaintzeari aurre egiteko: hasi hornitzailearekin negoziatzetik laguntza ekonomikoak eskatzen laguntzeraino.
3. **Antolatu eta borrokatu:** ez zaude bakarrik eta ez duzu egon behar. Antolatu Sindikatuarekin abusuetatik babesteko eta egoera berean dauden pertsonei laguntzeko.



**2. Ordaintzen
jarraitzen dut,
baina...**

2. Ordaintzen jarraitzen dut, baina...

2.1. Nire kontratua amaitu da eta ni joatea nahi dute

Zure kontratua amaituta egoteak ez du esan nahi dena galduta dagoenik. Kasu askotan luzatu behar dizute, bai amaiera behar bezala jakinarazi ez dizutelako, ordaintzen jarraitu duzulako, nahitaez luzatu behar dizutelako, etab.

Horrelako egoeretan, jarraitu **aholku** hauei:

1. **Kontsultatu zure kontratua:** begiratu ondo sinatu zenuen kontratu-mota eta noiz sinatu zenuen, horren arabera aukera batzuk edo besteak izango baitituzu kontratua luzatzeko.
2. **Gorde itzazu jabeak bidali dizkizun gutun, komunikazio eta jakinarazpenak:** garrantzitsua da gure kontratua garaiz eta formalitate batzuk betez amaitu dela jakinaraztea. Ondo gorde zure etxebizitzaren jabearekin izan dituzun komunikazio guztiak, lagungarriak izan baitaitezke.

Aholku horiez gain, **zer egin dezaket?**

1. **Galdetu zure kontratuaren legezkotasunari buruz:** aldi baterako kontratu batzuek ez dute eskatutako gutxieneko iraupena betetzen edo klausula irregularrak dituzte. Galdetu ondo zure kontratuari buruz, defendatzeko.

2. **Joan Sindikatura:** orientazioa eta laguntza emango dizugu kontratua amaitzeagatik kaleratzeari aurre egiteko.
3. **Antolatu eta borrokatu:** ez zaude bakarrik eta ez duzu egon behar. Antolatu Sindikatuarekin abusuetatik babesteko eta egoera berean dauden pertsoneri laguntzeko.

2.2. Bota egin nahi naute, jabeak etxebizitza behar duela esaten duelako edo nire etxebizitzaren jabea aldatu delako

Ohikoa da jabeak etxetik kanporatzen saiatzea, beren buruarentzat edo familiakoren batentzat ohiko etxebizitza gisa behar dutela esanez. Kasu batzuetan, etxea saldu dutela eta joan egin behar dugula esaten digute. Etxebizitzaren **salmentaren kasuan**, erantzuna argia da, ezin gaituzte bota etxea beste pertsona bati saldu diolako kontratua amaitu arte itxaron gabe.

Bestalde, jabeak etxebizitza bere buruarentzat edo senide batentzat behar duela esaten badigu, askotan behar hori ez dago justifikatuta edo ez ditu legezko formalitateak betetzen. Horrelako kasuetarako, **aholku** hauek ematen dizkizugu:

1. **Egiaztatu alokairu-kontratuaren iraupena** eta irakurri ondo klausulak: kontratua sinatu eta etxebizitzan sartu zinenetik gutxienez urtebete igaro behar da; gainera, kontratuan klausula berezi batek egon behar du, 5 urte igaro baino lehen jabeak etxebizitza okupatu ahal izango duela dioena.

2. **Jabeak idatziz jakinarazi badizu, gorde gutuna eta idatzi jakinarazpena zein egunetan jaso duzun.** Garrantzitsua da idatziak formalitate batzuk betetzea eta jakinarazpena behar bezain garaiz egitea (2 hilabete).
3. **Egiaztatu etxebizitza okupatzeko beharra ondo justifikatuta dagoen.** Denak ez du balio; jabeak justifikatu behar du etxebizitza iraunkorra behar duela beretzat, bere zuzeneko ahaideentzat (gurasoak, seme-alabak) edo bere ezkontidearentzat. Azken kasu horretan, epai judizial batek babestu behar du.

Aholku horiei jarraitzeaz gain, **zer egin dezaket?**

1. **Zure kontratuaren salbuespen luzapena eska dezakezu:** kasu askotan, zure alokairu-kontratuaren urteko salbuespenezko luzapenak eska ditzakezu, egoera ahulean bazaude eta gizarte-zerbitzuen txosten baten bidez frogatzen baduzu. Kasuaren arabera:
 - a) Zure etxebizitzaren jabea jabe handia bada, zure salbuespenezko luzapen-eskaera urtebeterako onartu behar da nahitaez.
 - b) Zure etxebizitza eremu tentsionatuan badago, zure eskaera ere nahitaez onartu behar da (salbuespen batzuekin), eta zure kontratua urtero luzatu ahal izango da, gehienez hiru urtera arte.
2. **Joan Sindikatura:** orientazioa eta laguntza emango dizugu zure egoera argi izan eta jabearen tranpetan ez erortzeko.
3. **Antolatu eta borrokatu:** ez zaude bakarrik eta ez duzu egon behar. Antolatu Sindikatuarekin abusuetatik babesteko eta egoera berean dauden pertsonei laguntzeko.

2.3. Alokairua igo nahi didate eta ezin dut neure gain hartu

Alokairua igotzea etxetik botatzeko beste modu bat baino ez da: geure gain hartu ezin ditugun prezioak inposatzen dizkigute eta etxebizitza uztera behartzen gaituzte. Kasu askotan, igoera horiek bat-batean gertatzen dira, legezko gutxienekoak errespetatu gabe eta alokairu-kontratuaren beraren klausulak bete gabe.

Horrelako egoeretan, **aholku** hauek emango dizkizugu:

1. **Ez utzi egiten.** Igoera askok ez dute inolako lege oinarririk, modu “informalean” egiten dira, arrazoi justifikaturik gabe edo aldean artean hitzarmenik egin gabe.
2. **Ez sinatu.** Zure alokairu-kontratua amaitzean errenta-igoera bat sina dezazun presionatzen badizute, zuhur jokatu eta aurrena aholkua bilatu.

Aholku horiei jarraitzeaz gain, **zer egin dezaket?**

1. **Egin kalkuluak eta negoziatu.** Kontratu gehienetan bi aldeen arteko itunak agintzen du, eta, beraz, errentaren negoziazioa ezinbestekoa da igoerak saihesteko. Adostasun batera iristen ez bazarete, igoera ez da legeak ezarritakoa baino handiagoa izango.
2. **Joan Sindikatura:** orientazioa eta laguntza emango dizugu zure egoera argi izan eta jabearen tranpetan ez erortzeko.
3. **Antolatu eta borrokatu:** ez zaude bakarrik eta ez duzu egon behar. Antolatu Sindikatuarekin abusuetatik babesteko eta egoera berean dauden pertsoneri laguntzeko.

2.4. Nire etxean obrak egiteko bota nahi naute

Kontuz ibili zure etxeko obra-lanen aitzakiarekin: kasu askotan gure errentatzaileak etxea uztera behartzen gaituzten etxeko obra-lanak egitera behartzen gaitu. Lan horietako asko saihestezinak dira eta ez lirateke gure kontratuak irauten duen bitartean egin behar; beraz, kontuz ibiltzea komeni da.


Horrelako egoeretan, **aholku** hauek emango dizkizugu:

1. **Idatziz jar diezazutela:** horrelako kasuetan, idatziz eta gutxienez alde aurretik jakinarazi behar da. Gutun horretan azaldu behar dute zer obra mota egin nahi den, zer egin behar den eta zenbat irauten duen, gutxi gorabehera.
2. **Kontuz obregatiko prezio-igoerekin:** batzuetan obrak aitzakia gisa erabiltzen dira, obra amaitu ondoren alokairua igotzeko. Hala ere, kasu askotan, hori ezin da egin, adibidez, obra kontserbaziokoa bada edo, bestela, kontratua amaitu baino lehen egin behar bada.

Aholku horiei jarraitzeaz gain, **zer egin dezaket?**

1. **Negoziatu jabearekin:** obra atzeratzen saia zaitezke larrialdi argirik ez dagoen kasuetan; gainera, etxean geratzeko eskubidea duzu, baldin eta lan horrek etxebizitzaren funtsezko zatiak erabiltzea galarazten ez badizu.
2. **Ordain ekonomikoa eskatu:** obra motaren eta iraupenaren arabera, kalte-ordaina edota deskontua izango duzu alokairuan, zure etxeko lanek irauten duten bitartean.
3. **Joan sindikatura** zure kasuan orientatzeko eta antolatu abusuen aurrean defendatzeko.

**3. Denboraldi
baterako
kontratua dut,
edo azpierrenta-
menduan bizi
naiz**



3. Denboraldi baterako kontratua dut, edo azpierrentamenduan bizi naiz

3.1. Nire kontratua urtebetetik beherakoa da

Aldi baterako kontratuak ugaritzen ari dira maizterrei eskubideak kentzeko bide gisa. Sinatzera bultzatzen gaituzte, nahiz eta urte osoan bizi izan bertan, errazago botatzeko, kostuak aurrezteko, etab. Kontratu horietako asko iruzurrak izan daitezke.

Horrelako egoeren aurrean, **aholku** batzuk emango dizkizugu:

1. **Gorde kontratuak:** Bertan jarraikortasunez bizi zarela frogatzeko, garrantzitsua da sinatu dituzun kontratu guztiak gordetzea. Argiaren, uraren, gasaren edo WiFi fakturak zure izenean badituzu, gorde itzazu horiek ere.
2. **Jabearekin dituzun elkarrizketak gorde:** garrantzitsua da hori, jabearekin harremana etengabea dela frogatzeko.

Aholku horiei jarraitzeaz gain, **zer egin dezaket?**

1. **Negoiazioa:** jabearekin negoziatzen saiatu behar dugu, gure aldi baterako kontratua ohiko bizilekuko beste batez alda dadin, babestuago egongo gara.

2. **Sindikatuarekin antolatu zaitez:** Jabeek inpunitatea dute eta, are gehiago, bakarrik gaudela baldin badakite. Ez zaude bakarrik eta ez duzu egon behar. Antolatu sindikatuarekin abusuetatik babesteko eta egoera berean dauden pertsoneri laguntzeko.

3.2. Azpierrentamenduan bizi naiz

Azpierrentamendu egoeran, maizter nagusi bat dago, eta honek etxebizitzaren zati bat alokatzen digu. Askotan, dauzkagun kontratuak hitzezkoak dira, eta errentatzaileekin bizitzearen jazarpena jasan behar dugu. Horrez gain, errentatzaileak prozedura judizialik gabe etxetik botatzen saiatu ohi dira.

Horrelako egoeren aurrean, AHOLKU batzuk emango dizkizugu:

1. **Babestu zure pribatutasuna:** Maizter nagusiak eta jabeak zure eremu pribatua errespetatu behar dute; beraz, sarraila edo kisketa bat jar dezakezu zure gelan sar ez daitezen.
2. **Informazioa bildu (grabatutako edo idatzitako elkarrizketak):** garrantzitsua da hori egitea, hor bizi garelako frogatzeko eta legez kanpoko kaleratzeak saihesteko. Beti izango dugu gure dokumentazioaren fotokopia gela barruan.
3. **Ez zaitez etxetik joan:** agindurik ez badago, ez dago etxetik botatzerik.

Aholku horiei jarraitzeaz gain, **zer egin dezaket?**

1. **Erregularizazioa:** ahozko kontratua idatziz eman diezagun saiatuko gara, alokairua, gastuak eta abarren prezioa igo gabe. Horrela, legez kanpoko etxegabetze baten aurrean babestuago egongo gara.
2. **Antola zaitez:** Maizter nagusiak edo jabeak zure gauzak etxetik ateratzen baditu, jar zaitez lehenbailehen harremanetan Etxebizitza Sindikatuarekin. Ekintza azkar batekin etxetik ez botatzea lor dezakegu. Horregatik, legez kanpoko kaleratze baten arriskuan egon zaitezkeela uste baduzu, jo sindikaturengana lehenbailehen.

4. Presionatzen ari zaizkit neu joan nadin



4. Presionatzen ari zaizkit neu joan nadin

Oso ohikoa da etxetik bota nahi izatea, era guztietako presio, mehatxu eta jarrera mafiosoen bidez: argi-, gas- edo ur-mozketak, lapurreta-mehatxuak, sarraila-aldaketak, etxebizitzaren zati bat erabiltzeko debekuak... Adibide horiek guztiak pertsona askoren eguneroko ogia dira. Modu txarrean kaleratzen saiatzen dira, eta ez dute inolako eskrupulurik hertsapena eta beldurra erabiltzeko.

Horrelako egoeretan, **aholku** hauek emango dizkizugu:

1. **Presioen aurrean ez amore eman:** beldurtu egin nahi zaituzte, indarrez ibil zaitezen, baina egiten ari direna ezin dute egin. Zu kaleratzearen prozesua azkartzeko egin dute, eta epaitegien bidetik etxegabeteze-prozedura batean defendatzeko aukera guztiak kentzeko.
2. **Graba ezazu dena, bildu probak:** ez da txantaiarik, hertsapenik edo mehatxurik zigor gabe geratu behar. Atera argazkiak eta pantailaren kapturak, grabatu elkarrizketak eta dokumentatu dena. Material hori guztia lagungarri izango zaigu etorkizunean.

Aholku horiei jarraitzeaz gain, **zer egin dezaket?**

1. **Jo Sindikatura** aholku bila, hertsapenetatik nola babestu jakiteko, eta presioak geldiarazteko.
2. **Hertsapenen aurrean, antolakuntza:** ez zaude bakarrik eta ez duzu egon behar. Antolatu sindikatuarekin abusuetatik babesteko eta egoera berean dauden pertsoneri laguntzeko.



**5. Indarkeria
matxista
jasaten dut**

5. Indarkeria matxista jasaten dut

Emakume langileok askotan bikotekideen, senideen zein jabearen indarkeria jasan behar izaten dugu. Egoera horiek are zailagoak dira erasotzen ari zaizkigun pertsonengandik urruntzeko baliabide nahikorik ez dugunean, eta gure erasotzaileekin bizitzera edo etxebizitza uztera behartuta ikusten dugunean.

Horrelako egoeren aurrean, **aholku** batzuk emango dizkizugu:

1. **Jaso probak:** oso garrantzitsua da egoera hori frogatzea. Indarkeria psikologikoaren kasuan, mezu guztiak gordeko ditugu, mehatxuzko elkarrizketak grabatuko ditugu, lekukoak bilatuko ditugu, etab. Indarkeria fisikoa bada, garrantzitsua da egoera hori frogatzen duen medikuaren parteia izatea.
2. **Salaketa:** egoera bakoitza desberdina da, baina kasu horietan salaketa jartzea erabilgarria izan daiteke bizitzeko alternatibak eskatzeko.

Aholku horiei jarraitzeaz gain, **zer egin dezaket?**

1. **Jo Sindikatura:** Indarkeriari aurre egiteko garrantzitsua da ondo lagunduta egotea. Sindikatuarekin borroka egingo dugu tratu txarren egoera batetik ateratzeak etxerik gabe geratzea ekar ez dezan.



**6. Etxebizitza
huts bat okupatu
dut, zein
egoeratan nago?**

6. Etxebizitza huts bat okupatu dut, zein egoeratan nago?

Bizitza gero eta garestiagoa da eta pertsona askok ez ditugu alokatzeko behar adina baliabide. Horregatik, pertsona askok etxebizitza hutsak okupatzen dituzte. Jabeek, epaitegiek eta poliziak egoera horiek aprobetxatzen dituzte zigorgabetasun osoz jarduteko, okupatzen ari garen pertsonen eskubideak urratuz. Horregatik, kasu horietan oso ohikoak dira etxegabetze ilegalak, hertsapenak...

Horrelako egoeren aurrean, **aholku** batzuk emango dizkizugu:


1. **Gorde paper guztiak:** Epaitegietatik iristen zaizkigun paperen berri izan behar dugu, oso garrantzitsua izango da denak biltzea eta sindikatuarekin harremanetan jartzea.
2. **Ez duzu atea poliziari irekitzeko derrigortasunik:** irekitzen baduzu eta identifikazioa eskatzen badizute, eman egin behar duzu, baina utzi argi zure etxean sartzeko baimenik ez dutela. Ez dugu egiten dizkiguten galderei erantzun beharrik; beraz, ez dugu esango hor bizi garen ala ez.
3. **Agindu judizialik gabe, ez dago etxegabetzerik:** okupatzen ari bazara ere, agindu judizialik gabe ezin da etxegabetzerik egon.

Aholku horiei jarraitzeaz gain, **zer egin dezaket?**

1. **Zure egoera erregularizatu:** Behin etxe barruan zaudela jabearekin harremanetan jar zaitezke negoziatzeko.

2. **Jar zaituz harremanetan sindikatuarekin:** Okupatzen ari bazara, zure egoeraren berri eman Sindikatuari, aholkuak eman ahal izateko eta, behar izanez gero, legez kanpoko kaleratze baten aurrean jardun ahal izateko.
3. **Abokatu eskatu:** Abokatu bat beharko dugu, baina doako abokatuak daude. Joan Sindikatura zure egoerari buruz aholkatzeko eta prozesu hori nola gauzatu behar den azaltzeko.

7. Bota egin nahi naute beren arauak ez betetzeagatik



7. Bota egin nahi naute beren arauak ez betetzeagatik

Asko bizi gara udal-aterpetxeetan, harrera-etxeetan, Elizaren elkarteetan edo Alokabideren (EAE) edo etxebizitzetan. Erakunde horietako gehienek jendea kanporatzen dute beren arauak ez betetzeagatik, ordutegia errespetatu ez edo etxea gaizki zaindu dugunaren aitzakiarekin.

Horrelako egoeren aurrean, **aholku** batzuk emango dizkizugu::

Aterpetxeak eta harrera-etxeak (ez dago alokairu-kontraturik):


1. **Elkarrizketak grabatu:** arauren bat bete ez dugula, bota egingo gaituztela eta sartzen uzten ez digutela esaten digutenean, elkarrizketa grabatu egingo dugu, bertsioa aldatu ez dezaten.

Elizaren elkarteak edo Alokabide/Nasuvinsa (alokairu kontratua dago):

1. **Elkarrizketak grabatu:** aurrekoan bezala, azalpenak idatziz eman nahi ez dizkiguten kasuetan elkarrizketak grabatuko ditugu.
2. **Agindurik gabe, ez dago etxegabetzerik:** epaile batek emandako etxegabetze-agindurik gabe ezin gaituzte etxetik bota. Berdin da polizia, jabeak edo “X” egunean etxebizitza utzi behar dugula esanez gutunak bidaltzea; ez gara etxetik joango agindua eman arte.

Aholku horiei jarraitzeaz gain, **zer egin dezaket?**

1. Etxebizitza kudeatzen duenak gizarte-zerbitzu propioak baditu, **bilera bat eskatuko dugu** kanporatzea bertan behera uzteko negoziatzeko.
2. Lehenengo mehatxua iristen zaigunean edo etxetik ateratzeko arriskuan gaudenean, **sindikatuarekin harremanetan jarriko gara** egoerari aurre egiteko eta gure etxean geratzeko borrokatzeko.



8. Desokupazio enpresa bat ni bota nahian ari da

8. Desokupazio enpresa bat ni bota nahian ari da

Gero eta ohikoagoa da jabeek matoiz osatutako enpresetara jotzea, maizterrak etxetik bota ditzaten. Ez da beharrezkoa okupatzen egotea enpresa horietako batek etxetik bota nahi zaitzan; matoiak dira, eta berdin zaie alokairuan egunean egotea, hilabete bateko zorra izatea edo diru-sarrerarik gabe geratu izana. Enpresa hauek zure etxea bisitatzan dute eta bertatik joan zaitezten konbentzitzen saiatzen dira: paperak sinatzera behartzen zaituzte, dirua eskaintzen dizute, mehatxatu egiten zaituzte, atea indarrez irekitzen saiatzen dira, zure etxean sartzea eragozten dizute...

Horrelako egoeren aurrean, **aholku** batzuk emango dizkizugu:

1. **Informazioa bildu:** Zurekin harremanetan jartzen badira, jaso ahal den informazio guztia, enpresaren izena, norekin ari zaren hitz egiten, zenbat denbora eman dizuten, etab.
2. Bisita zure etxean egiten badute, **INOIZ EZ ireki atea**. Baliteke barrura sartzen saiatzea, eta behin barruan egonda zu bertatik botatzea. Haiekin hitz egiten baduzu, egin ezazu atea itxita daukazula.
3. Dei bat jasoz gero, **grabatu deia**, mehatxuak, hertsapenak eta txantaiak ere jaso baititzakezu.
4. **Ez enpresak ez jabeak ezin dizute etxera sartzea eragotzi;** beraz, ataritik sartu eta zure etxera sartzeko eskubidea duzu.

Aholku horiei jarraitzeaz gain, **zer egin dezaket?**

1. Beldurra sartzeko ekintzaren bat egiten badute (pintadak atean, oharrak, segimenduak...) **argazia aterako dugu ezer ukitu edo egin aurretik.**
2. **Jar zaituz harremanetan sindikatuarekin:** Egoera honetan kaleratuak ez izateko bermerik onena sindikatuaren babesaren izatea da. Enpresa horiek maizterrak bakarrik eta babesik gabe daudenean baino ez dira eraginkorrak, kasu horietan inpunitate osoz jardun baitezakete.

Kontaktuak



Kontaktuak

ARABA

Gasteizko Etxebizitza Sindikatua:

Tel. 652 737 228

Emaila: etxebizitzasindikatua@gmail.com

BIZKAIA

Bilboko Etxebizitza Sindikatua:

Tel. 613 732 176

Emaila: esindikatua.bilbo@gmail.com

Durangaldeko Etxebizitza Sindikatua:

Tel. 747 408 923

Emaila: es.durangaldea@gmail.com

NAFARROA

Iruñerriko Etxebizitza Sindikatua:

Tel. 624 895 314

Emaila: esindikatua.irunerria@gmail.com

Lizarraldeko Etxebizitza Sindikatua:

Tel. 621 070 427

Emaila: esindikatua.lizarraldea@gmail.com

GIPUZKOA

Donostiako Etxebizitza Sindikatua:

Tel. 623 319 927

Emaila: esindikaturia.donostia@gmail.com

Buruntzaldeko Etxebizitza Sindikatua:

Tel. 624 874 407

Emaila: esindikaturia.buruntzaldea@gmail.com

Urola Kostako Etxebizitza Sindikatua:

Tel. 633 349 418

Emaila: esindikaturia.urolakosta@gmail.com

Urola Erdiko Etxebizitza Sindikatua:

Tel. 644 682 313

Emaila: etxebizitzasindikaturiaue@gmail.com

Tolosaldeko Etxebizitza Sindikatua:

Tel. 613 768 248

Emaila: esindikaturia.tolosaldea@gmail.com

Oarsoaldeko Etxebizitza Sindikatua:

Tel. 604 174 851

Emaila: esindikaturia.oarsoaldea@gmail.com

Goierriko Etxebizitza Sindikatua:

Tel. 613 853 957

Emaila: esindikaturia.goierri@gmail.com

Beste edozein eskualdetan etxegabetze-arriskuan bazaude, jarri harremanetan **Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistarekin:**

Emaila: etxebizitzasindikaturia@kontseilusozialista.eus



Euskal Herriko
Etxebizitza
Sindikatu
Sozialista

